

Merkataritza Indarberritzeko Plan Berezia Arrasate

Esku-hartze Plana

2010



AURKIBIDEA

Pág.

I.- LABURPEN DIAGNOSTIKOA

3

II.- LAN-XEDEAK ETA ESTRATEGIAK

9

III.- ESKU-HARTZEA

16

A.- ERAKARGARRITASUNA

17

B.- IRISGARRITASUNA

29

C.- ATSEGINTASUNA

35

D.- ANIMAZIOA

40

E.- LEHENTASUNEN LABURPEN TAULA, AURREKONTU ESTIMAZIOAK ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK

52

I.- LABURPEN DIAGNOSTIKOA

1.- ESKAINTZAN ARDATZAK DIREN PUNTUAK

- 1.- Kuantitatiboki egonkortuta dagoen merkatal-eskaintza, erdialdean ekipamendu eskaintza mugatua daukana eta herriaren kanpo aldeko eskaintzak eragin handia duena.
- 2.- Merkatal-eredu egokia baina hiri-ekonomia zentzuan nahikoa ez dena; eta erdialdean hirugarren sektorearen bizitasun eta sinergiaren sortzailea.
- 3.- Merkatal-ereduari berari lotutako gatazka bat eta kontrajarriak diren bi ikuspuntu posible: herriaren kanpo aldeko eskaintza indartu edo erdialdeko eskaintza indartu.
- 4.- Marka bat – Arrasate-, ekonomia eta gizarte erreferentzia izango dena; kanpokoak erakartzeko gaitasuna izango duena; merkatal-marka izango den – Arrasate Irekia-, erdiguneari lotuta eta udalerriko merkataritzaren komunikazio eta hedapen logikoa oinarri duena.
- 5.- Udalerriak duen kultura “industrial” hirugarren sektorea eragozten duena.

- 6.- Merkatal-establezimendu bateratua kuantitatiboki, prozesu publiko-pribatuak aurrera eramateko oinarriak ezartzen dituen; eta sektorea dinamizatuko duena.**
- 7.- Ostalari sektorea beherantz egonkortua eta eskaintza mugatua duena.**
- 8.- Dinamika kultural bat, hirugarren sektoreko jarduera osagarrirako oinarriak ahalbidetzen duena.**
- 9.- Merkatal-gunea “bildua” agertzen da, hirugarren sektorearen bi ardatzek inguratzen duelarik. Eta aldi berean “erakargarria” erronkak eta aukerak eskaintzen dituena.**
 - Biteri Plaza/Garibai osatu gabeko merkatal-gune horren almendra gisa**
 - Tradizioa eta tipismoa eskaintzen duen Alde Zaharra, uharte atsegina bat bizitokiz eta industriaz inguraturik.**

2.- ESKARIAREN ARDATZAK

1- Merkatal-gastuaren ihesa maila altua (%33,5)profil desberdineko hiru bidetik:

- **Udalerri bertako “barruko” ihesa (%18,8), Musakolako hipermerkaturantz; batez ere drogeria eta elikagaietan izaten delarik gastua (hipermerkaturia supermerkatu gisako erabilera)**
- **Gasteiz hirigunera kanpora ihesa(%11,5), batez ere ekipamendu pertsonalari dagokionez (jantziak eta oinetakoak)**
- **. Gasteiz kanpo aldean dauden ekipamenduetara ihesa (Bopulevard eta Gorbeia) (%26,2) eta hemen ekipamendu pertsonala,etxeko gaiak eta bestelako merkataritza izaten dira osagarriak.**

...eta Eibarko merkatal eskaintzari lotutako ihesaren eraginik gabe

2.- Eragin eta gastu erakarpen “argia” eta tradiziozkoak dituzten bi zonalde:

- Lehen mailako edo hurbileko zonaldean Arrasatek duen menpekotasun maila altua (Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga), hurbiltasuna eta eskaintza propio eza bateratzen dituena. (Zonalde honetako gastu erakarpena Arrasateko bizilagunen urteko gastu potentzialaren %43,1en antzekoa da).
- Bigarren mailako zonaldearen eragin txikiagoa, Oñati, Bergara, Antzuola eta Elgetari lotuak; distantzia eta eskaintza propio gehiagoz ezaugarritzen direnak. (Zonalde honetako gastu erakarpena Arrasateko bizilagunen urteko gastu potentzialaren %32,0 ren antzekoa da).

Horretaz gainera, kanpoko gastuaren erakarpen maila altuarekin (%13,6) lotuta aurkitzen direnak, batez ere Musakolako hipermerkatuari lotuta (%8,2); eta udalerrri erdialdeak duen kanpoko gastu erakarpen mugatuak (%5,4) ezaugarrituta. Kanpoko ekipamenduak hesi gisa jokatzen du.

- 3.- Udalerriak gastu ihes eta erakarpen saldo orekatua du, baina udalerrri erdialdeari dagokionez oso ezkorra (-%28,1).**
- 4. Maila sozioekonomiko altuko eskaintza bat, eskualdeko industria indar tradizionalari lotuta (familia diru-sarrera altuak, autoa tasa handia, orain arte langabezia maila baxua izan duena baina egun krisiak modu zuzen batean eragiten diona, e.a.)**
- 5.- Erosketa ohitura nahiko egonkortuta, komunikazioaren hobekuntzarekin lotuta, populazioak duen auto tasa altua, eta azkenik, udalerriko merkatal-eredua eta inguruko eskaintza: autoaren erabilera maila altua, aisialdiarekin e.arekin zerikusia duten ekipamendu konparagarrien erosketak, batez ere asteburuetan eta udalerritik kanpora dauden ekipamenduetara.**
- 6.- Merkatal-eskaintzarekin pozik dago kontsumitzailea, hala ere, garapen maila urria edo egonkortze harriskuaz ohartarazten duena.**
- 7. Optimizatu gabe “airean” dagoen populazio maila altua: industrian lan egiten duten langileak egunero Arrasatera etortzen direnak, baina udalerriko kontsumitzaile taldearekin bat egin ez dutenak.**

II.- XEDEAK ETA LAN-ESTRATEGIAK

XEDEAK ETA LAN-ESTRATEGIAK

- **XEDEA: “Industria eta udalerria”. Loturaren bila**
 - Udalerriko “merkatal-ereduaren” bilakaera hiri-ekonomiak protagonismo handiagoa izan dezan eta agerian egon dadin: Udalerriko hirugarren sektore aberatsagoa eta erakargarriagoa izan dezan industria DNA duen ingurune batean.
 - Bizitokiak eta ekonomiak bat egiten duten erdigunea: Arrasateko erdialdea bizitzeko espazioa eta...erosteko, aisialdirako nahiz kanpoko bizilagunak jasotzeko gai izango dena, guztia Hiri-Ekonomia ikuspuntu batetik.
 - Industria Udalerria+ kalitatezko hirugarren sektore berritzailea duen hirigunea: industria ahalmena eta indar sozioekonomikoa kontutan hartu, hirugarren sektore berritzaile eta kalitatezkoaren zerbitzura.

ESTRATEGIA BAT: LANERAKO HIRU TRESNA

ERAKARGARRITASUNA, HIRI-ESPAZIOAREN ATSEGINTASUNA, IRISGARRITASUNA

- **Ardatzak diren elementuak:**
 - **ERAKARGARRITASUNAK** fluxuen grabitazio ereduaren eragile gisa jokatzeko du. Merkatal-ekipamendu erakargarri batek bi helburu betetzen ditu: bertako bizilagunak kanpoko ekipamenduetara ihes egitea eragozten du –erosketa ihesa-, eta inguruneke erosle berriak erakartzen ditu.
 - **ERAKARGARRITASUNAK** beraz, ingurunean dauden eskaintzekin txikiak nahiz handiak, lehiakor izateko gai den merkatal-eskaintza izan beharko luke; tamaina, espezializazio eta aukera anitzekoa, **ERAKARGARRIA** azken finean.

ESTRATEGIA BAT: LANERAKO HIRU TRESNA

ERAKARGARRITASUNA, HIRI-ESPAZIOAREN ATSEGINTASUNA, IRISGARRITASUNA (2)

- Ardatzak diren elementuak:
 - Merkatal-hiri-espazioaren **ATSEGINTASUNA**, kontsumitzaileari ibilbide espazio seguru eta egokitu bat eskaintzean datza.
 - **ATSEGINTASUNAK** oinezko/kontsumitzailearentzat egokia den hirigintza azpiegitura eta ekipamendu bat eskatzen du. Egokitzapen hori ibilbide espazioetara nahiz atsedeen espazioetara hedatu beharko litzateke.

ESTRATEGIA BAT: LANERAKO HIRU TRESNA


ERAKARGARRITASUNA, HIRI-ESPAZIOAREN ATSEGINTASUNA, IRISGARRITASUNA (3)

- **Ardatzak diren elementuak:**
 - **Udalerriko gainontzeko auzoetatik merkatal-ekipamenduetara barruko IRISGARRITASUNA, maldak dituzten auzoen edo irisgarritasun arazoak dauzkaten auzoen irisgarritasuna errazteko.**
 - **Kanpoko IRISGARRITASUNAK harrera gisa jokatuko lukeen hirigintza-azpiegitura bat eskatzen du (aparkalekuak), gainontzeko udalerrietako bisitari/kontsumitzaileak erakartzeko, edo egunero Arrasateko industrian lan egitera etortzen diren langileak erakartzeko.**

ESTRATEGIA BAT: LANERAKO HIRU TRESNA

EMPRESA NAHIZ HIRI-ANIMAZIOA ERAKARGARRITASUNAREKIN, ATSEGINTASUNAREKIN ETA IRISGARRITASUNAREKIN BAT

- Ardatzak diren elementuak:
 - **ANIMAZIOA** hiri-establezimendu enpresarialen lehiakortasun indibidual eta taldeko dinamizazio estrategia gisa. Horretaz gainera, beraien jarduerarako ingurugiro egokia garatuko eta sustatuko duena.



- **ESTRATEGIA MARTXAN JARTZEKO HIRU PRINTZPIO:**
- **1. ERDIGUNETASUNA:** *Erakargarritasuna*, hiri-espazioaren eta bere erdigunearen erronka gisa, hiri-ekonomia baldintzetan bizilagunentzat eta bisitariarentzat erreferentzi espazioa bilakatu.
- **2. HURBILTASUNA:** Hiri-espazioaren *atsegintasuna* eta *irisgarritasuna* lan-tresna gisa, hiri-espazioa gizarte kohesio nahiz egunero bizitza egiteko espazio izan dadin.
- **3. AGENTE PUBLIKO-PRIBATUEN ARTEKO ELKARLANA:** kudeaketa tresna izan dadin sektoreak izan dezakeen animazio ekimenaz hobeto baliatzeko baita Merkataritza Indarberritzeko Plana beraz baliatzeko ere.

III.- ESKU-HARTZE PLANA

A. ERAKARGARRITASUNA

LEHENENGO ARDATZEAN ESKU-HARTZEAK

**1go ARDATZA:
ERAKARGARRIT
ASUNA**

1.- HIRI-MERKATARITZA ERAGILEA

- 1.1.- Indar Ideia 1: Ex-novo erreferentzia izango den Eskaintza Nagusi bat sortzea**
- 1.2.- Indar ideia 2: Egungo Merkatua zaharberritzea**
- 1.3.- Indar ideia 3: Zinema zaharra optimizatzea**
- 1.4.- Indar ideia 4: Proposamen desberdinak**

2.- HIRUGARREN SEKTOREAREN ERAGILE ERAKARGARRIA

- 2.1.- Indar ideia: Mongragon Experience- gizarte berrikuntza turismoaren erakarpn gisa**

3.- POLIGONOKO LANGILEARI HARRERA ETA OPTIMIZAZIO PLANA

4.- HIRI-ERAKARGARRITASUNA/ANIMAZIO FAKTORE GISA MERKATU IBILTARIA BERRIZTATZEA

- 4.1.- Merkatu ibiltariaren ekipamendua berriztatzea**
- 4.2.- Hiri-dinamizazioaren elementuekin eta erlazioa duten beste elementuekin koordinazioa**

5.- MERKATAL-ESKAINZAREN INSTALAKUNTZAK GAITU

- 5.1.- Instalakuntzen berrikuntzarako laguntzak optimizatu**

A.- ERAKARGARRITASUNA

1.- HIRI-MERKATARITZAREN ERAGILEA

Merkatal-ereduaren eraldaketa gauzatzeko hiri-merkataritzaren erakargarritasuna indartzean datza; erakargarritasun funtzioa izango duen merkatal-eragilea/k eratuz.

Indartze hau ideia eta ekimen desberdinen oinarrian gauzatu behar da. Horietako batzuk zehaztapen zaila duten erronka konplexuak dira eta lana epe luzera begira.

Zentzu honetan, proposamen zehatzak baino gehiago garatzeko dauden INDAR IDEIAK edo bideak ezartzea izango litzateke, lan-ibilbide gisa.

Idea hauen garapenean, aukera desberdinen interes handiagoa edo txikiagoa eta dauden aukera errealak zehaztu edo erabakiko dira, piskanaka helmuga edo merkatal-eragilea ikusi arte .

A.- ERAKARGARRITASUNA

1.1.- Indar ideia 1: Ex-novo erreferentzia izango den Eskaintza Nagusi bat sortzea (1/2)

Esku-hartzeak/Ardatzak:

Non: Garibai + Biteri Plaza espazioak osatzen dutena, konpondu gabeko aukera estrategiko espazioa eta sinbolikoa den Arrasateko Merkatalgunearen etorkizuneko muina.

Zein: Kudeatzaile eta eragile posibleak bilatzea Arrasateko Merkatalgune Irekia proiektu sinbolikoa den merkatal-espazio batentzat .

Zer: Hiri-merkataritza ekipamendu “desberdina” eta “erakargarria” ardatzak diren bi aldagaiekin jolasean:

- berrikuntza identitate eta erakargarritasun gisa. Berrikuntza laborategi aukera, merkatal-hedapenerako elementu aurrerakoien test edo sarbidea gauzatzeko abangoardiazko espazioa.

- Produktua bera, hurbiltasuna, bere baitan erreferentziazko eta hurbileko kontsumoa, bertan Arrasateko merkataritzak berak parte hartze aktiboa izango duena.

Proposamen desberdin hauek, handizkako merkatuaz eta kontserba elikagaiaz gain, dimentsio eta bideragarritasunaren arabera, bestelako merkatal-eskaintzak edo hirugarren sektoreko eskaintzak barneratu beharko lituzkete.

A.- ERAKARGARRITASUNA

1.1.- Indar ideia 1: Ex-novo erreferentzia izango den Eskaintza Nagusi bat sortzea (2/2)

Lan ibilbideak:

- a) Ezaugarri hauek dituzten ekipamenduen Kudeatzaile/eragile posibleekin harreman eta hausnarketa prozesu bateratua, udalerriko hirugarren sektore eta merkatal-ereduaren eraldaketa borondate esparru batean.
- b) Diseinu azterketa, bideragarritasun ekonomikoa eta gauzatze teknikoa ondorengo ikuspuntutik:
 - Garibai-Biteri Plazak osatzen duten espazioaren berrantolaketa.
 - Parking-ari loturako proiektua eta bertarako sarbideak.
 - Potentzial/eskuhartze esparruari zinema zaharra erantsi (Biteri plazatik ikusgarri den aurrekaldea), eskaintzaren espazio elementu osagarria, planaren barruan kokatzen dena, proiektua eta lanak arinduko dituen eta gainontzeko hirigintza sarea iragazkor bilakatuko duena. (ikus 1.3. esku-hartzea)

Amaitzeko, gehitzen den konplexutasunetik abiatuz, nabarmendu behar da azaldutako gogoetak garatu eta doitu beharreko indar ideien eta potentzialen lan esparruak direla, inolaz ere itxitako proposamen elementuak .

A.- ERAKARGARRITASUNA

1.- HIRI-MERKATARITZA ERAGILEA

1.2.- Indar ideia 2: Egungo Merkatuaren zaharberritzea

Esku-hartzea/Ardatzak:

Egungo merkatuaren zaharberritze proiektua azken urteetan garatzen ari den lan-ildo da eta merkatal-hirigintzaren eragilea indartzeko helburuari eraginatzen diona.

Bigarren indar ideia honek, garatuta dagoen Handizkako Merkatea zaharberritze proiektuaren dinamizazio eta gauzatzeari dagokio.

Merkatal-aukera hau, konplexutasun txikiago eta eragin arinagoa lukeena, Biteri Plaza/Garibai ardatza osatzen duten espazio estrategikoaren esku-hartze lagungarri eta osagarria gomendatzen da. Kasu honetan optimizazio hiritarra gauzatzeko eta merkatuaren proiektu sinergikoa indartzeko.

A.- ERAKARGARRITASUNA

1.- HIRI-MERKATARITZA ERAGILEA

1.3.- Indar ideia 3: Zinema zaharra optimizatu

Esku-hartzeak/Ardatzak:

Zinema zaharraren kokapenak, Biteri plazatik ikusten dena, espazio horrek merkatal-aisialdirako garapen aukerak eskaintzen ditu: bere erabilerarako aukeren azterketa eta balorazioa.

Lan-planteamendu hau ez da aurretik azaldutako 1.1. indar ideiarekin barruan ulergaitza.

1.4.- Indar ideia 4: Proposamen desberdinak

Esku-hartzeak/Ardatzak:

Proposamen orokorren garapenerako eta miaketarako ezaugarriak azpimarratuz, azaldu diren ideia indarrak modu osagarrian ulertu behar dira. Horrela, bukaeran izango den egoera egingarrienak arestian aipatutako hiru indar ideia elementuak eduki beharko lituzke.

A.- ERAKARGARRITASUNA

2.- HIRUGARREN SEKTOREKO ERAGILE ERAKARGARRIA

Turismoko hirugarren sektore eremutik ere Arrasateko erdigunearen erakargarritasuna sendotu daiteke. Kasu honetan, Arrasateren ospea kooperatiba taldeari lotura optimizatuta.

Merkatal-eragilearekin lotutako proposamenetan aipatu bezala hirugarren sektorearen eragile posiblearen inguruko ekimenek forma desberdinak hartu ditzazkete.

Zentzu honetan, proposamen zehatza baino gehiago, ondoren egiten den sarrera INDAR IDEIA edo garatzeko den ibilbidea litzateke.

Idea hauen garapenean, aukera desberdinen interes handiagoa edo txikiagoa eta dauden aukera errealak zehaztu edo erabakiko dira, piskanaka helmuga edo merkatal-eragilea ikusi arte .

A.- ERAKARGARRITASUNA

2.- HIRUGARREN SEKTOREKO ERAGILE ERAKARGARRIA

Esku-hartzeak/Ardatzak:

2.1.- Indar ideia: Mondragon Experience- gizarte berrikuntza turismoaren erakarpen gisa (1/3)

Potentziala: Enpresa edo industria turismo beste esperientzien bidetik jarraituz, Mondragon kooperatiba esperientzia kontutan hartu beharko litzateke erakargarritasun elementu gisa eta kanpoko bisitarien eragile gisa, potentzial esanguratsua eskaintzen baitu. Horretaz gainera, udalerriko industria profila hirugarren sektore hiritar zentzuan optimizatzeko aukera ematen du.

Erakargarritasun zehatza: Turismo-hirugarren sektore zentzuan ustiatutako gainontzeko enpresa-esperientziak ez bezala, Mondragon esperientziaren balore palanka ez da gauzatutako produktuan edo prozesu industrialean oinarritzen, baizik eta bultzaten duen gizarte esperientzian eta bere dimentsio eta lorpenetan. Posizio zehatz hau turismo kulturala gauzatzeko, ezagutzazko turismoa.

A.- ERAKARGARRITASUNA

2.1.- Indar ideia: Mondragon Experience- gizarte berrikuntza turismoaren erakarpen gisa (2/3)

Hiri-ikuspena + sorrera irekia: Hiri-ekonomia zentzuan horrelako ezaugarriak dituen proiektu bat optimizatzeko beharrezkoa da:

- **ERREFERENTZIA PUNTU bat** hiritarra, esperientziara eta udalerrira sarrera bat, museo moderno logika ikuspuntu batetik (partehartzailea, elkarreragilea, irekia,...) bisitaren hasierako aurpegi zehatza eskaintzen du. Bere kokapenaren eta ezaugarriei buruzko eztabaida (exnovo eraikina, eraikin industrial zahar berezia –Elma esate baterako-).
- **SORRERA IREKIA ETA BATERATZAILEA** udalerrri osoarekin: interesa duten mugarri desberdinetara edo bisita osagarrietara ibilbideak, udalerrriaren historiarekin lotura, Alde Zaharretik serrailagile lehenaldira, turismo ibilbideetan merkataritzak eta ostalaritzak laguntza eragile gisa jokatzuz.

A.- ERAKARGARRITASUNA

2.1.- Indar ideia: Mondragon Experience- gizarte berrikuntza turismoaren erakarpen gisa (3/3)

Lan-ibilbide bikoitzarengan partekatutako proiektua:

- **Sakontze azterketa** kontzeptuari eta potentzialari buruz , materializazio eta dimentsionamendu aukerak, txertatutako kostu/abantailak.
- **Arrasateko Udalaren eta Mondragon Corporaciónen arteko hausnarketa prozesua:** Errol zehatzak eta errol bereziak

Berriz azpimarratu beharra dago indar ideia hauek garatzen eta doitzen joan beharko direla zabaldua eta erakargarria den lan prozesu batean.

A.- ERAKARGARRITASUNA

3.- POLIGONOKO LANGILEARI HARRERA PLANA ETA OPTIMIZAZIOA

Esku-hartzeak/Ardatzak:

Eskari Potentzialaren Mapa eta sortutako Aukerak eta Beharrak: Poligono desberdinetako enpresen nahiz langileen kopurua eta profilaren ezagutza sakona (sexua, adina,...), beraien ordutegia, garraio eta kontsumo ohiturak + merkatal eta zerbitzuekin lotuta egon daitezkeen gabeziak edo aukerak identifikatu.

Harrera ekipamenduen dotazio/optimizazioa –parking-ak- erdigunean bi puntuen artean fluxua erraztuko duena + norabidearen informazioaz lagunduta (8.1., 8.2., 8.3. eta 8.4. esku-hartzeak).

Abantaila batera eta ad hoc zerbitzuak: Koordinatutako eta osagarriak diren esku-hartze politika baten garapena langile bisitaria udalerrian kontsumitzera bultzatuko duena. Langilearen asteko eguna, egokitutako ordutegi politika, bezero/poligono txartela, poligonoetara egunero banaketa, lbaiarteren eskaintza Katalogoaren bidez (18.3. esku-hartzea).

A.- ERAKARGARRITASUNA

3.- POLIGONOKO LANGILEARI HARRERA PLANA ETA OPTIMIZAZIOA

Informazio-komunikazio programa zehatza eta jarraia Merkataritza-Udalaren laguntzaz...:

- Langileen profil desberdinak estaltzen dituen komunikazio bide desberdinen bidez (elektronikoa web + e-mail: administratibo-tekniko-zuzendaritzakoa, astero/hamabostaldi papera postaren bidez hedatu...)
- Merkatal- zerbitzu eskaintzaren ilustrazioekin + langilearentzako sortutako abantailak eta aukera zehatzak + bere aisialdirako garraio aukerak e.a.

Xehetasun Garapen Azterketa planteamendua formalizatzeko eta sakonera emateko.

A.- ERAKARGARRITASUNA

4.- HIRI-ERAKARGARRITASUNA/ANIMAZIO FAKTORE GISA MERKATU IBILTARIA BERRIZTATZEA

Esku-hartzeak/Ardatzak:

4.1.- Merkatu ibiltariaren ekipamenduaren modernizazioa etorkizuneko planteamendu polifuntzionalak gehituz: postuak kokapenaren hobekuntza, operadoreen TICak ezartzeko wifi eremua ezarri, eguraldiaren araberako aukerak hausnartu.

4.2.- Hiri-dinamizazioa eta antzeko elementuak gainontzeko hiri-merkataritzarekin koordinatu.

A.- ERAKARGARRITASUNA

5.- MERKATAL-ESKAINZAREN INSTALAZIOAK GAITU

Esku-hartzeak/Ardatzak:

5.1.- Instalazioen berrikuntzarako laguntzak optimizatu. Erakargarritasuna mantentzeko modernizazio estimulu nahiz dinamizazioa eta instalazioak zabaltzeko aukera.

B. IRISGARRITASUNA

BIGARREN ARDATZEKO ESKU-HARTZEAK

2. ARDATZA: IRISGARRITASUNA

6.- ERDIGUNEKO MERKATAL-ESPARRURA IRAGAZKORTASUNA. GAZTELUONDO-ARRASATE

7.- ZONALDE GARAIEKIN LOTURAK HOBETU: MUSAKOLA-SANTA TERESA-MAKATZENA

8.- APARKALEKU PLAN OROKORRA

8.1.- OTA ezarri

8.2.- OTA prezio politika sustatua lurrazpiko aparkaleku eskaintza erabiltzeko

8.3.- Erdigune inguruko parking eskaintza indartu

8.4.- Aparkatze politikan merkataritzaren partehartze aktiboa

B.- IRISGARRITASUNA **6.- ERDIGUNEKO MERKATAL-ESPARRURA IRAGAZKORTASUNA. GAZTELUONDO-ARRASATE**

Esku-hartzeak/Ardatzak:

Alde Zaharreko merkatal-ardatzek intentsitatea galtzen doaz malda gora doan einean; ingurune hau kaltetuta gertatzen da hirigintza jarraipen ezaren ondorioz (Santa Barbara Parkea).

Gazteluondo eta Arrasate pasealekuaren lotura aukerak aztertu. .

B.- IRISGARRITASUNA

7.- ZONALDE GARAIEKIN LOTURAK HOBETU: MUSAKOLA-SANTA TERESA-MAKATZENA

Esku-hartzeak/Ardatzak:

Zonalde garaietako bizilagunen irisgarritasunaren hobekuntza udalerriko merkatal-eremura (erdigunera edo hurbilera) ez da beharrezkoa suertatzen soilik, baizik eta bizi kalitatea eta gizarte lotura adierazten dute.

Egoera bakoitzari egokitutako irtenbideen bidez zonalde garaietako irisgarritasun politiken jarraipena: Musakola-Santa Teresa-Makatzenan eskuhartzeak

B.- IRISGARRITASUNA

8.- APARKALEKU PLAN OROKORRA

Esku-hartzeak/Ardatzak:

8.1.- OTA ezarri

OTA sistema ezarri (aurretik zonaldeak mugatuz) erdialdeko merkatal-eremua eta bere inguruak arintzeko balioko duena, batez ere azaleraren okupazioak kaltetzen dituzten eremuetan.

8.2.- OTA prezio politika sustatua lurrazpiko aparkaleku eskaintza erabiltzeko

OTA prezioen eta lurrazpiko parking-aren prezioen koordinazioa, azken hauen erabilera bultzatuko dituztenak: egonaldi laburrentzako abantaila ekonomikoak edo dohainik; eta epe ertain-luzerako egonaldien tarifak garestiak parkinarekin alderatuz..

B.- IRISGARRITASUNA **8.- APARKALEKU PLAN OROKORRA**

8.3.- Erdigune inguruko parking eskaintza indartu

Erdigune inguruko zonaldeetako aparkaleku aukerak aztertu (batez ere Otalora/Zanugalde inguruak) garaieran aparkatzeko aukerak balioztatu.

Estudio de Alternativas

8.4.- Aparkatze politikarekin merkataritzaren partehartze aktiboa

IBAIARTEekin elkar laguntza aparkalekuak eta OTA sistemaren erabilera bultzatzeko erraztasunen emanez.

C. ATSEGINTASUNA

HIRUGARREN ARDATZEAN ESKU-HARTZEAK

3. ARDATZA: ATSEGINTASUNA

9.- AUTOAK OKUPATUTAKO ESPAZIOAK ARINDU

9.1.- Otorako erdibitzailea arindu

9.2.- San Juan plazan dauden barrukaldeko plazak berriztatu

10.- BITERI PLAZA-GARIBAI ARDATZA BERRANTOLATU

11.- HURBILEKO HIRUGARREN SEKTORE ERAKARGUNEAK

12.- SEINALIZAZIO PLAN BAT GARATU ETA EZARRI

13.- MERKATAL-EREMUETAKO HIRI-ESTANDAREAK IGO

C.- ATSEGINTASUNA

9.- AUTOAK OKUPATUTAKO ESPAZIOAK ARINDU

Esku-hartzeak/Ardatzak:

9.1.- Otorako erdibitzailea arindu

Autoak duen hiri-espazioaren okupazioa oso handia da, batez ere ardatz batzuetan (Otorara Lizenziaduna), espazioa arintzea eskatzen dutenak:

Otorara Lizenziaduneko erdibitzailea aparkatzeko ez erabili, horretarako behar diren neurriak hartuz (8.1., 8.2., 8.3. eta 8.4. esku-hartzeak), eta espaloiak zabaltu, geldituko den espazio librea aprobetxatuz.

9.2.- San Juan Murtzoan dauden barrukaldeko plazak berrizatu

Autoak kendu eta San Juan Murtzoko plazak oinezkoen gunerak bilakatu (Iparragirre eta Jose Maria Eguren).

C.- ATSEGINTASUNA

10.- BITERI PLAZA-GARIBAI ARDATZA BERRANTOLATU

Berrantolaketa orokorra eta egungo erabilerak birplanteatu (ikus 1go esku-hartzea). Garibai ardatza Otorra eta parking sarrerarekin lotura birplanteatu Maalako Arrabala sarreran eraginik ez edukitzeko; oinezkoen fluxuen bi ardatzak lotzeko balorazio elementu gisa.

11.- HURBILEKO HIRUGARREN SEKTORE ERAKARGUNEAK

Merkatal-intentsitate gutxiko ardatz edo auzoetan hurbileko hirugarren sektore erakarguneak sortu: hurbileko merkatal-hirugarren sektore eskaintza duten gunek atseginak, oinezkoen gunetan edo autoak ibilbidea murriztua duten ingurune batean: Elizalde kalea hurbileko hirugarren sektorearen erakargune gisa.

C.- ATSEGINTASUNA

12.- SEINALIZAZIO PLAN BAT GARATU ETA EZARRI

Jadanik garatuta dagoen seinalizazio plana dinamizatu, eta horrek dakarren udalerriaren merkatal-markarekin –Arrasate Irekia-. Horizontalki nahiz bertikalki elementu multzoaren garapena; gainontzeko hirigitza estandareak hobetzeko esku-hartzeekin modu egoki batean bat datozelarik.

13.- MERKATAL-EREMUETAKO HIRI-ESTANDAREAK IGO

Merkatal-eremuko hiri-estandareak modu jarrai batean hobetu, argiztapena, hiri-altzariak, parametro bertikalak eta antzekoak.

D. ANIMAZIOA

LAUGARREN ARDATZEAN ESKU-HARTZEAK

**4. ARDATZA:
ANIMAZIOA**

14.- IBAIARTE: BAZKIDE KOPURUAREN ARABERA EGITURA PROPIOA GAUZATU + UDALERRIAN LOKALA/BULEGOA

15.- MERKATAL-ESTABLEZIMENDU BERRIAK GARATU ETA MANTENTZEA SUSPERTU

15.1.- Tutoretzapean Ondoregotza Plana (Ibaiarte)

15.2.- Urteroko sari baten bidez merkatal-jarduerari gizarte onarpena eskaini

16.- OSTALARITZA GARATZEKO PLANA

16.1.- Ostalari sektorea berritzeko eta dinamizatzeko suspergarri programa osoa

17.- MERKATARIA GAITZEKO ETA SUSPERTZEKO PLANA

17.1.- Dinamismo profesionala indartu: Berrikuntza, kalitatea eta teknologia

17.2.- merkataritza erosketaren lehiakortasun hobekuntzari eta laguntza programei zabaldu

18.- ERAKARGARRITASUN ESTRATEGIEN ZERBITZURA DINAMIZAZIO ESKUHARTZEAK

18.1.- Eroslea: Erosketa arduraduna

18.2.- Eroslea: Familiak (ostirala eta larunbatak)

18.3.- Eroslea: Poligonoko langilea

19.- ZERBITZU ETA MERKATAL-ESKAINTZAK KUDEATZEKO IBAIARTEREN PARTAIDETZA

19.1.- Outlet partekatua

19.2.- Zerbitzu gunea

20.- MERKAGUNEA HIRI-EKONOMIAREN FORO GISA

20.1.-Merkagunea foro anitza eta hiri-ekonomia egonkorra bilakatu

20.2. PERCOaren inguruko ebaluazio eta ikuspuntuen urteroko txostena

D.- ANIMAZIOA

14.- IBAIARTE: BAZKIDE KOPURUAREN ARABERA EGITURA PROPIOA GAUZATU + UDALERRIAN LOKALA/BULEGOA

Erreibindikazio faseari amaiera emateko eta ekimenak aurrera eramateko beharrezkoa da lokal edo bulego egitura bat izatea, batera (sektoreak) eta partekatuta (Udalak) kudeaketari ekiteko.

15.- MERKATAL-ESTABLEZIMENDU BERRIAK GARATU ETA MANTENTZEA SUSPERTU

Esku-hartzeak/Ardatzak:

15.1.- Tutorizatutako Ondoregotza Plana (Ibaiarte)

Jubilatzeko hurbil dauden merkatariei Laguntza Programa bat ezarri. Jarduera mantzentzeko orientazioak eman eta planifikatu.

Dauden enpresei laguntza zerbitzuak optimizatu: Saiolanekin laguntzak, Garapen Agentziak,...

15.2.- Urtero sari baten bidez merkatal-jarduerari gizarte onarpena eskaini Merkatarri Elkarteak, Udalak eta udalerriko beste gizarte agenteek eskainia.

D.- ANIMAZIOA

16.-OSTALARITZA GARATZEKO PLANA

Esku-hartzeak/Ardatzak:

16.1.- Ostalari sektorea berritzeko eta dinamizatzeko suspergarri programa osoa segmentu desberdinetan (Jatetxeen kasuan batez ere). Lan-esparru desberdinen estaldura: profesionalizazioa, eskaintza berrikuntza, instalazio berrikuntza, turismo kalitate zigilua, e.a.

17. -Merkataritza Gaitzeko eta Suspertzeko Plana

Esku-hartzeak/Ardatzak:

17.1. Dinamismo profesionala indartu: Berrikuntza, Kalitatea eta Teknologia.

Planteamendu eraginkorra informazio/sentsibilizazio saioetatik abiatuz, merkatari/ostalari **talde txiki** homogeenok jardura esparruen arabera edo nahastuta.

17.2.- Merkataritza erosketaren lehiakortasun hobekuntzari eta laguntza programei zabaldu

Egun dauden programen hedapena eta ezagutza (Elkarguneak) merkatarien artean. Parte-hartze aktiboa bultzatu.

D.- ANIMAZIOA

18.- ERAKARGARRITASUN ESTRATEGIEN ZERBITZURA DINAMIZAZIO ESKU-HARTZEAK

Esku-hartzeak/Ardatzak:

Politika zehatzak dituzten segmentu publiko batzuetan eskuhartzeak: **erosketa arduraduna, familiak, poligonoetako langilea**

18.1.- Eroslea: Erosketa arduraduna

Azoka ibiltariari eta baserritarren azokari gainontzeko merkatal-establezimenduak jarraitzea. Merkatal-establezimenduek ere kalean partehartzea. Abantaila zehatzak

18.2.- Eroslea: Familiak (ostirala eta larunbata)

” Kontsumitzailearengan ohitura sortzea “hileroko ostira/larunbata berdina”, familiari zuzendutakoa “ merkatalguneetara ihesa eragozteko”, Udalarekin lan egin “Agenda Kulturala edo Familia Jarduerak koordinatu”.

“Hilabeteko lehen larunbataren” **instituzionalizazioa** balioztatu (beharra bada bigarrena) **merkataritza eta ostalaritzaren** erreferentzia gisa.

D.- ANIMAZIOA

18.- ERAKARGARRITASUN ESTRATEGIEN ZERBITZURA DINAMIZAZIO ESKU-HARTZEAK

18.3.- Erosleak: Poligonoko langileak (1/2)

Poligonoetan lan egiten duten beste udalerrietako langileen erosketa ohitura bultzatzeko xedearekin , astean egun batean **ordutegia** eguerdi/arratsalde/arratsera **luzatzeko** aukera aztertu promozioak eta abantailak egongo direnak **“langilearen egunean”**.

“Gourmet txartela” bezalako esperientziak dinamizatzeko aukerak komunikatu, abantaila fiskalak enpresareztat, langilearen eroste ahalmena handitzea eta ostalaritza gastua Arrasaten gelditzeko aukera.

D.- ANIMAZIOA

18.- ERAKARGARRITASUN ESTRATEGIEN ZERBITZURA DINAMIZAZIO ESKU-HARTZEAK

18.3.- Erosleak: poligonoko langileak (2/2)

Ibaiarteren aldetik merkatal-eskaintzaren komunikazio eta koordinazio zehatzen eskuhartzeen **kudeaketa**; abantaila multzoa eta zerbitzuak ad hoc:

- *Udalerriko merkatal-eskaintzaren erakusleho izango den web orri baten garapena*
- *Informatzeko eta erosteko katalogo baten garapena*
- *Mailing-ak merkatal-ostalaritza eskaintzekin*
- *Telefono bidezko/ online bidezko erosketak egiteko aukera. Lantokira erosketak eramateko aukera*
- *Corners-ak merkatal-informazioa dutenak puntuka*
- *Poligono bezero txartela*
- *e.a.*

D.- ANIMAZIOA

19.- ZERBITZU ETA MERKATAL-ESKAINTZAK KUDEATZEKO IBAIARTEREN PARTAIDETZA

Esku-hartzeak/Ardatzak:

19.1.- Outlet partekatua

IBAIARTE kudeaketa espazio propioa, bazkideen produktuen OUTLETak merkatuarazteko. Ikus erreferentziako esperientziak (Bilbao). Saiolan, Garapen Agentziaren eta antzeko bestelako erakundeen kudeaketa laguntza.

19.2.- Zerbitzu gunea

Ibaiartetik zerbitzu berezi BATZUK kudeatzeko aukera aztertu (aseguruak, poltsak, segurtasun tresnak, e.a.).

D.- ANIMAZIOA

20.- MERKAGUNEA HIRI-EKONOMIAREN FORO GISA

Esku-hartzeak/Ardatzak:

20.1.- Merkagunea hiri-ekonomiaren foro anitza eta egonkorra bilakatu, inplikaturako sektoreak bultzatzeko; proiektuak aurrera eramateko eta proiektu eraldakorren aurrean eztabaida irekia eduki. PERCO programa lanerako gidoi gisa erabili edo martxan jartzeko partitura gisa erabili.

20.2.- PERCOaren inguruko ebaluzio eta ikuspuntuen urteroko txostena: urtero txosten bat eratu, jarduera berri bakoitzeko aurkezten diren ibilbide edo proposamenen lorpen eta zailtasun balantzea agertuko dena.

E.
LEHENTASUNEN LABURPEN
TAULA ETA JARRAIPEN
ADIERAZLEAK

Ondoren aurkezten da:

- **Esku-hartzeen laburpen taula** denbora lehentasuna, aurrekontu estimazioa eta proiektua aurrera eramateko agenteen buruzagitza adierazten dena.
Hirigintza lanak suposatzen dituzten proiektuen aurrekontu estimazioak, aurretik egindako azterketen arabera mugatu dira edo bertan azaltzen diren proiektuetan agertzen direnen arabera, ez obra berari dagokiona, 1.2 esku-hartzea ezik, kasu honetan azterketa zehatz bat baitago.
- **Jarraipen adierazle posibleen erlazioa** hiru esku-hartzeei lotuta daudenak. Adierazle multzo irekia da, beraien zehaztapena edo aukeraketa proiektuaren eta informazioa lortzeko bideragarritasunaren arabera egingo da.

LEHENTASUN TAULA: ERAKARGARRITASUNA

1go Ardatza: Erakargarritasuna	DENBORA LEHENTASUNA	AGENTEAK	AURREKONTU BEHAKETA ETA ORIENTAZIOA
1.- HIRI-MERKATARITZA ERAGILEA			
1.1.- Ideia indarra1: Exnovo erreferentzia izango den Eskaintza Nagusi bat sortzea	ALTUA	Udala buruzagitzan + erakundearteko laguntza-Ibaiarte	Hirigintza tekniko eta merkatal-aukeren oinarrizko azterketa: 65.000 euro
1.2.- Indar ideia 2: Egungo merkatua zaharberritzea	ALTUA	Udala buruzagitzan + erakundearteko laguntza-Ibaiarte	Eraikuntza eta hauekin lottutako eragiketen kostua: 4.400.000 euro Erreferentzia: Eginda gadoen azterketa bat
1.3.- Indar ideia 3: Zinema zaharra optimizatzea	ALTUA	Udala buruzagitzan + erakundearteko laguntza-Ibaiarte	Ez dagokio. 1.1esku-hartzeari lotutako aurrekontua
1.4.- Indar ideia 4: Proposamen desberdinak	ALTUA	Udala buruzagitzan + erakundearteko laguntza-Ibaiarte	Ez dagokio
2.- HIRUGARREN SEKTOREAREN ERAGILE ERAKARGARRIA			
2.1.- Indar ideia: Mondragon-Experience- gizarte berrikuntza turismoaren erakarpen gisa	ALTUA	Udala buruzagitzan + MCC ingurua + erakundearteko laguntza	Oinarrizko diseinu azterketa eta bideragarritasuna/er razztasuna: 50.000 euro

LEHENTASUN TAULA: ERAKARGARRITASUNA

1go Ardatza: Atractividad	DENBORA LEHENTASUNA	AGENTEAK	AURREKONTU BEHAKETA ETA ORIENTAZIOA
3.- POLIGONOKO LANGILEARI HARRERA ETA OPTIMIZAZIO PLANA	ERTAINA	Ibaiarte buruzagitzan Udalaren laguntzaz	Beharren oinarrizko azterketa eta planaren diseinua: 25.000 euro
4.- HIRI-ERAKARGARRITASUNA/ANIMAZIO FAKTORE GISA MERKATU IBILTARIA BERRIZTATZEA			
4.1.- Merkatu ibiltariaren ekipamendua berriztatzea	ERTAINA-BAXUA	Udala buruzagitzan	Aukera teknikoen azterketa eta udal-ordenantzen eragina: 12.000 euro
4.2.- Hiri-dinamizazioaren elementuekin eta erlazioa duten beste elementuekin koordinazioa	ERTAINA-BAXUA	Ibaiarte	Ez dagokio
5.- MERKATAL-ESKAINTZAREN INSTALAKUNTZAK GAITU			
5.1.- Instalakuntzen berrikuntzarako laguntzak optimizatu	ERTAINA	Ibaiarte buruzagitzan Udalaren laguntzaz	Ez dagokio. Laguntza ildoaren optimizazioa

LEHENTASUN TAULA: IRISGARRITASUNA

2. Ardatza: Irisgarritasuna	DENBORA LEHENTASUNA	AGENTEAK	AURREKONTU BEHAKETA ETA ORIENTAZIOA
6.- ERDIGUNeko MERKATAL-ESPARRURA IRAGAZKORTASUNA. GAZTELUONDO-ARRASATE	ERTAINA	Udala buruzagitzan	Aukeren azterketa eta oinarritzko diseinua: 35.000 euro
7.- ZONALDE GARAIEKIN LOTURAK HOBETU: MUSAKOLA-SANTA TERESA-MAKATZENA	ERTAINA	Udala buruzagitzan	Ez dagokio. Hirigintza proiektua noiz ezarriko den eta bere irtenbide zehatzen menpe
8.- APARKALEKU PLAN OROKORRA			
8.1.- OTA ezarri	ALTUA	Udala buruzagitzan	Aurreko azterketak 20.000 euro
8.2.- OTA prezio politika sustatua lurrazpiko aparkaleku eskaintzaren erabilerarako	ALTUA	Udala buruzagitzan	Ez dagokio
8.3.- Erdigune inguruko parking eskaintza indartu	ERTAINA	Udala buruzagitzan	Ez dagokio. Aukeren arabera
8.4.- Aparkatze politikan merkataritzaren partehartze aktiboa	ERTAINA	Udala buruzagitzan + Ibaiarte	Ez dagokio

LEHENTASUN TAULA: ATSEGINTASUNA

3. Ardatza: Atsegintasuna	DENBORA LEHENTASUNA	AGENTEAK	AURREKONTU BEHAKETA ETA ORIENTAZIOA
9.- AUTOAK OKUPATUTAKO ESPAZIOAK ARINDU			
9.1.- Otorako erdibitzailea arindu	ALTUA	Udala buruzagitzan	Esku-hartzearen oinarrizko azterketa: 35.000 euro
9.2.- San Juan plazan dauden barrukaldeko plazak berriztatu	BAXUA	Udala buruzagitzan	Esku-hartzearen oinarrizko azterketa : 15.000 euro
10.- BITERI PLAZA-GARIBAI ARDATZA BERRANTOLATU	ERTAINA	Udala buruzagitzan	Ez dagokio. 1.1 esku-hartzeari lotuta
11.- HURBILEKO HIRUGARREN SEKTORE ERAKARGUNEAK	ERTAINA-BAXUA	Udala buruzagitzan	Ez dagokio. Hirigintza proiektua noiz ezarriko den eta bere irtenbide zehatzen menpe
12.- SEINALIZAZIO PLAN BAT GARATU ETA EZARRI	ERTAINA-ALTUA	Udala buruzagitzan	Ikus seinalizazio azterketaren elementu bakoitzaren kostua (2009 ekaina)
13.- MERKATAL-EREMUETAKO HIRI-ESTANDAREAK IGO	ERTAINA	Udala buruzagitzan	Ez dagokio. Esku-hartze zehatzen arabera

LEHENTASUN TAULA: ANIMAZIOA

4. Ardatza: Animazioa	DENBORA LEHENTASUNA	AGENTEAK	AURREKONTU BEHAKETA ETA ORIENTAZIOA
14.- IBAIARTE: BAZKIDE KOPURUAREN ARABERA EGITURA PROPIOA GAUZATU + UDALERRIAN LOKALA/BULEGOA	ALTUA	Ibaiarte	Ez dagokio. Hartzeko diren erabakien menpe
15.- MERKATAL-ESTABLEZIMENDU BERRIAK GARATU ETA MANTENTZEKO SUSPERGARRIAK			
15.1.- Tutoretzapean Ondoregotza Plana (Ibaiarte)	ALTUA	Ibaiarte	Dinamizazio laguntza teknikoa: 18.000 euro
15.2.- Urteroko sari baten bidez merkatal-jarduerari gizarte onarpena eskaini	ERTAINA-BAXUA	Ibaiarte buruzagitzan Udalaren laguntzaz	Ez dagokio
16.-OSTALARITZA GARATZEKO PLANA			
16.1.- Ostalari sektorea berritzeko eta dinamizatzeko suspergarri programa ososa	ERTAINA	Ibaiarte	15.000 euro
17.- MERKATARIA GAITZEKO ETA SUSPERTZEKO PLANA			
17.1.- Dinamismo profesionala indartzea: Berrikuntza, Kalitatea eta Teknologia	ERTAINA-ALTUA	Ibaiarte	15.000 euro
17.2.- Merkataritza erosketaren lehiakortasun hobekuntzari eta laguntza programei zabaldu	ERTAINA-BAXUA	Ibaiarte	Elkargune esparruan finantzatutako proiektuak

LEHENTASUN TAULA: ANIMAZIOA

4. Ardatza: Animazioa	DENBORA LEHENTASUNA	AGENTEAK	AURREKONTU BEHAKETA ETA ORIENTAZIOA
18.- ERAKARGARRITASUN ESTRATEGIEN ZERBITZURA DINAMIZAZIO ESKUHARTZEAK			
18.1.- Eroslea: erosketa arduraduna	ERTAINA	Ibaiarte	Ez dagokio. Esku-hartzeen arabera
18.2.- Eroslea: Familiak (Ostirala eta larunbatak)	ERTAINA-BAXUA	Ibaiarte	Ez dagokio. Esku-hartzeen arabera
18.3.- Eroslea: poligonoko langilea	ALTUA	Ibaiarte	
19.- ZERBITZU ETA MERKATAL-ESKAINTZAK KUDEATZEKO IBAIARTEREN PARTAIDETZA			
19.1.- Outlet cpartekatua	BAXUA	Ibaiarte	Bultzada diseinua: 20.000 euro
19.2.- Zerbitzu gunea	BAXUA	Ibaiarte	Bultzada diseinua: 20.000 euro
20.- MERKAGUNEA HIRI-EKONOMIAREN FORO GISA			
20.1.-Merkagunea foro anitza eta hiri-ekonomia egonkorra bilakatu	ALTUA	Udala + Ibaiarte	Ez dagokio
20.2. PERCOaren inguruko ebaluazio eta ikuspuntuen urteroko txostena	ALTUA	Udala + Ibaiarte	Ez dagokio

JARRAIPEN ADIERAZLE POSIBLEAK

1go ARDATZA: ERAKARGARRITASUNA

1.- HIRI-MERKATAL-ERAGILEA

1.1.- Indar ideia 1: ex-novo Erdigunean Erreferentziazko Eskaintza Sortu

- Ideia eta proposatutako ekimen kopurua
- Garatutako indar ideia kopurua
- Hiri-merkatal-eragilea izan daitekeen indar ideia aukeraketa (Bai/Ez)
- Merkatal-ekipamendu "desberdina" eta "erakargarria" garatu (Bai/Ez)
- Inguruetako udalerrietako merkatal-gastuaren erakarpenaren hazkundera %tan
- Arrasateko bizilagunen merkatal-gastuaren ihesaren beherapena %tan
- Proposatutako merkatal-nahasketa horretan merkatal-eskaintza zabaldu (hirugarren sektore esparruak aipatu)
- Merkatal-eredu berria inplikaturako aholkulari/eragile kopurua
- Hirigitza-hirugarren sektore ezaugarriak dituzten beste proiektuekin lotu : Garibai-Biteri plaza espazioaren berrantolaketa, parking proiektua, Zinema zaharrean eskuhartzea (Bai/Ez, lotutako proiektu kopurua)

1.2.- Indar ideia 2: Egungo Merkatua zaharberritu

- Handizkako Merkatuaren zaharberritze proiektua gauzatu (Bai/Ez)
- Indar ideia 1ekin lotura (Bai/Ez)

1go ARDATZA: ERAKARGARRITASUNA

1.- HIRI-MERKATAL-ERAGILEA

1.3.- Indar ideia 3: Zinema zaharra optimizatu

- Zinema zaharraren erabilerarako aukeren azteketa garapena (Bai/Ez)
- Zinema Zaharra zaharberritzeko jarduera (Bai/Ez)

1.4.- Indar ideia 4: proposamen desberdinen nahasketa

- Propostutako hiru ideia indarrak garatzea (Bai/Ez)
- Ideiak ezatzea denbora berean (proiektuak martxan jartzeko epeak konparatu)

1go ARDATZA: ERAKARGARRITASUNA

2.- HIRUGARREN SEKTOREAREN ERAGILE ERAKARGARRIA

2.1.- Indar ideia: Mondragon Experience- turismoa erakartzeko gizarte berrikuntza elementu gisa

- Mondragon Experience kontzeptua aurrera eramateko proposatzen diren kokapen / puntu kopurua
- Kontzeptuaren eta bere ahalmenaren sakontze azterketaren garapena (Bai/Ez)

3.- POLIGONOKO LANGILEARI HARRERA PLANA ETA OPTIMIZAZIOA

- Eskari ahalmenaren mapa eta sortutako aukeren nahiz beharren eta xehetasun azterketaren garapena (Bai/Ez)
- Auzoen arteko merkatal-gastuaren fluxu hazkundea %tan
- Asteaz zehar/aste buruetan erdiguneko parking-en okupazioaren hazkundea %tan
- Poligonoko langileentzat ad hoc ezarritako zerbitzuen abantaila kopurua
- Ezarritako merkatal-tresnen erabilerearen garapena: poligonoko zerbitzu eskaria, bezero/poligono txartelaren erabilera, katalogo bidezko salmenten garapena, e.a.
- Informazio-komunikazio programaren bidez egindako harreman kopurua

1go ARDATZA: ERAKARGARRITASUNA

4.- AZOKA IBILTARIAREN MODERNIZAZIOA ERAKARGARRITASUN/ HIRI-ANIMAZIO FAKTORE GISA

4.1.- Azoka ibiltariaren ekipamenduaren modernizazioa

- Azoka ibiltariaren ekipamenduaren modernizazioarekin lotutako hobekuntza jarduera kopurua
- Ezarritako hobekuntzari lotutako postu kopurua
- Wifi eremua ezarri (Bai/Ez)
- Udalerriko hiri-merkataritza agente eta beste elementuen koordinazioan garatutako jarduera kopurua

4.2.- Hiri-dinamizaziorako bestelako elementuen koordinazioa

5.- MERKATAL-ESKAINTZAREN INSTALAZIOAK GAITU

5.1.- Instalazio berrikuntzerako laguntzak optimizatu

- Instalazioetan berrikuntzak egin dituzten merkatal-establezimendu kopurua
- Epe ertainera instalakuntzetan inbertsio politikaren ikuspuntu aldaketa (Bai/Ez)

2. ARDATZA: IRISGARRITASUNA

6.- MERKATAL-ERDIGUNERANTZ IRAGAZKORTASUNA. GAZTELUONDO-ARRASATE

- Gazteluondo eta Arrasate Pasealekuaren artean proposatutako lotura irtenbide kopurua
- Auzoen arteko merkatal-fluxu hazkundea %tan

7.- ZONALDE ALTUEN ARTEKO LOTURA: MUSAKOLA-SANTA TERESA-MAKATZENA

- Irisgarritasuna hobetzeko proposamen kopurua
- Auzoen arteko merkatal-fluxu hazkundea %tan.

2. ARDATZA: IRISGARRITASUNA

8.- APARKATZE PLAN OROKORRA

8.1.- OTA ezarri

- OTA sistema ezarri (Bai/Ez)
- Okupazio maila altuko orduak
- OTA sistemapean plaza kopurua

8.2.- Lurrazpiko aparkalekua erabiltzeko OTA prezio politika suspergarria

- Aparkatzeko denbora batazbestekoa
- Iraupen motzeko aparkaldia/ iraupen ertaineko aparkaldia- iraupen luzeko aparkaldi kopurua
- Hirugarren sektoreko establezimenduei lotutako parking-aren inguruko ekimen proaktibo kopurua
- Parking/OTA prezio konparazioa eta orduaren arabera eta aste eguneko okupazio mailaren konparazioa

2. ARDATZA: IRISGARRITASUNA

8.3.- Erdigune inguruko parking eskaintza indartu

- Inguruko zonaldeetan proposatutako aukera kopurua
- Garaieran aparkatzeko proposamen aukera kopurua

8.4.- Aparkatze politikan merkataritzaren parte-hartze aktiboa

- Aparkatze politikari atxikitutako merkatal-establezimendu kopurua
- Aparkatze politikarekin lotutako jarduera kopurua, beherapenekin eta bestelako erreztasunekin lotuta

3. ARDATZA: ATSEGINTASUNA

9.- AUTOAK OKUPATUTAKO ESPAZIOAK ARINDU

9.1.- Otorako erdibitzailea arindu

- Otorako Lizentziadunaren kendutako aparkaleku plaza kopurua
- Espaloi metro lineala zabaldu

9.2.- San Juan Plazan dauden barrukaldeko plazak berriztatu

- Barrukaldeko plazetan ibiltari fluxu hazkundera
- Aparkatutako autoen beherakada %tan

3. ARDATZA: ATSEGINTASUNA

10.- BITERI PLAZA- GARIBAI ARDATZA BERRANTOLATU

- Berrantolaketa orokorra garatu eta erabilera, lotura eta irisbideak birplanteatu (Bai/Ez)

11.- HURBILEKO HIRUGARREN SEKTORE ERAKARGUNEAK

- Intentsitate baxuko ardatzetan garatutako hirugarren sektore erakargune kopurua
- Elizalde Klean kokatutako merkatal-establezimendu berri kopurua
- Inguruetako auzoetan gelditzen den merkatal-gastuaren hazkundea %tan

12.- SEINALIZAZIO PLAN BAT GARATU ETA EZARRI

- Seinalizazio Plana dinamizatu (Bai/Ez)
- Ezarritako seinale horizontal nahiz bertikal elementu kopurua
- Merkatal-udalerri markaren ospea

13.- MERKATAL-EREMUETAKO HIRI-ESTAMDAREAK IGO

- Merkatal-eremuetan hobetutako hiri-estandare kopurua

4. ARDATZA: ANIMAZIOA

14.- IBAIARTE: BAZKIDE KOPURUAREN ARABERA EGITURA PROPIOA GAUZATU + UDALERRIAN BULEGOA

- Bazkide berri kopurua
- Hirugarren sektorearen eta Udalaren artean dinamizatutako ekipen kopurua
- Udalerrian bulego bat ezarri (Bai/Ez)

15.- MERKATAL-ESTABLEZIMENDU BERRIAK GARATU ETA MANTENTZEA SUSPERTU

15.1.- Tutoretzapean Ondoregotza Plana (Ibaiarte)

- Ondoregotza Laguntzeko Programa garatu (Bai/Ez)
- Besterendutako merkatal-establezimendu kopurua/ jubilatzekeo prozesuan dauden jabeen establezimendu kopurua
- Oinordekotza Plan bati lotuta dauden 55 urtetik gorako merkatari kopurua

15.2.- Urteroko sari baten bidez merkatal-jarduerari gizarte onarpenera eskaini

- Urtero Arrasaten merkatal-jarduerari gizartearen onarpen saria (Bai/Ez)
- Urtero banatuko diren sari kopurura

4. ARDATZA: ANIMAZIOA

16.- OSTALARITZA GARATZEKO PLANA

16.1.- Ostalari sektorea berritzeko eta dinamizatzeo suspergarri programa osoa

- Prestakuntza Plana eratu (Bai/Ez)
- Segmentu zehatzei eskaintza berri kopurua (langileei esate baterako)
- kalitate sistemari lotutako ostalaritza establezimendu kopurua (BBPP, kalitatezko Q)
- Instalazio berrikuntza planari lotutako ostalari establezimendu kopurua
- Jatetxe segmentuan proposatutako ideia indar kopurua

17.- MERKATARIA GAITZEKO ETA SUSPERTZEKO PLANA

17.1.- Dinamismo profesionala indartu: Berrikuntza, Kalitatea eta Teknologia

- Talde txikitan prestakuntza/sentsibilizazio saio kopurua
- Berrikuntza dela eta Ibaiartek hirugarren sektorean garatutako jarduera kopurua
- Kalitatea dela eta Ibaiartek hirugarren sektorean garatutako jarduera kopurua
- Teknologia dela eta Ibaiartek hirugarren sektorean garatutako jarduera kopurua
- Osatutako talde kopurua

4. ARDATZA: ANIMAZIOA

17.2.- Merkataritza erosketaren lehiakortasun hobekuntzari eta laguntza programei zabaldu

- Elkargunes Elkarguneei esparruan proiektu zehatzekin lotutako hedapen jardunaldi kopurua
- Proiektu zehatzei lotutako merkatal-establezimendu kopurua

18.- ERAKARGARRITASUN ESTRATEGIEN ZERBITZURA DINAMIZAZIO ESKU-HARTZEAK

18.1.- Eroslea: Erosketa arduraduna

- Segmentu honetan garatutako abantaila zehatzen kopurua
- Segmentu honi zuzendutako egun berezietan egindako abantailazko erosketa "diana" kopurua (banatutako bono kopuruarekiko %a).
- Arrasateko merkatal-establezimenduen eta azoka ibiltariaren artean gauzatutako jarduera kopurua
- Asteazken zehar eta asteburuetan bertan gelditzen den merkatal-gastua oinarritzko ondareetan %tan
- Azoka ibiltarian salmenta hazkundea
- Baserritarren azokan salmenta garapena

18.2.- Eroslea: Familiak (ostirala eta larunbata)

- Bertan geratzen den merkatal-gastuaren hazkundea %tan , batez ere oinarritzko ondare eta ondare konparatiboei dagokienez
- Udalerrian programatutako jardueren ezagutza maila
- Segmentu honi zuzendutako egun berezietan egindako abantailazko erosketa "diana" kopurua (banatutako bono kopuruarekiko %a).
- Sektorearekin bat Udalak garatutako jarduera koordinatu kopurua
- Hilabetero larunbata bat instituzionalizatu erreferentziatzeko merkatal-ostalaritza jardunaldi gisa (Bai/Ez)

4. ARDATZA: ANIMAZIOA

18.3.- Eroslea: Poligonoko langilea

- Bertakoak ez diren langileei zuzendutako egun berezietan egindako abantailazko erosekta "diana" kopurua (banatutako bono kopuruarekiko %a).
- Ordutegia egokitzen /aldatzen duten establezimendu kopurua
- Langilearen eguna ezarri (Bai/Ez)- egun horretan bertan ematen den salmenta kopurua
- Gourmet txartela, langile txartela, e.a programei lotutako establezimenduen %a
- Garatutako promozio zehatz kopurua
- Web orri baten garapena (Bai/Ez)
- Bidalitako mailing kopurua

19.- ZERBITZU ETA MERKATAL-ESKAINTZAK KUDEATZEKO IBAIARTEREN PARTAIDETZA

19.1.- Outlet partekatua

- Ekimenari atxikitutako establezimendu kopurua
- Partekatutako outlet baten ezarpena (Bai/Ez)

19.2.- Zerbitzu gunea

- Ibaiartek bultzatutako establezimendu kopurua zerbitzu gunean
- Garatutako eta partekatutako zerbitzu berezi kopurua

4. ARDATZA: ANIMAZIOA

20.- MERKAGUNEA HIRI-EKONOMIAREN FORO GISA

20.1.-Merkagunea foro anitza eta hiri-ekonomia egonkorra bilakatu

- Merkagune esparruan garatutako topagune kopurua
- Beste erakundeekin ezarritako itunak (Garapen Agentziak) eta elkarlanean diharduten eskualde barruko beste establezimenduak

20.2. PERCOaren inguruko ebaluazio eta ikuspuntuaren urteroko txostena

- Lorpen eta zailtasun balantzearen txosten garapena (Bai/Ez)
- Azken PERCOan garatutako jarduera proposamen kopurua
- Datorren ekitaldirako ebaluatutako eta balioztatutako jarduera kopurua